



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2021eko urtarrilaren 28a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoan eta modu telematikoan

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:50

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieto, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 1/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.



- 2.- Onartzea, egoki bada, Kastore Gest, SL (Begi Bistan) enpresak ordaindu beharreko kanona, 2020. urteari dagokiona.
- 3.- Onartzea, egoki bada, udal-langileen ordainsarien 2021erako igoera eta kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udal-korporaziokideen ordainsarien igoera.
- 4.- Berrestea, egoki bada, ahateen parkea mantentzearen arduradunak ematen dituen zerbitzuen baldintzak.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko Aritzaga-Endaia eta Herriko Plaza berrurbanizatzeko lanen proiektu aldatua.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Ainara Munduate lehen alkateordearen dedikazio partzialaren portzentajea aldatzea.
- 7.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 1/2021 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 1/2021 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 938.896 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko urtarrilaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2021eko aurrekontuari dagokion 1/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 938.896 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.



c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KASTORE GEST, SL (BEGI BISTAN) ENPRESAK ORDAINDU BEHARREKO KANONA, 2020. URTEARI DAGOKIONA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du. Kastore Gest, SL (Begi Bistan) enpresak Arraunetxan ematen dituen zerbitzuak hauek dira: arraunketako eta piraguismoko ontziak alokatzeko zerbitzua eta aisialdirako hangarreko apalak alokatzeko zerbitzua, arraun-ontziak eta antzekoak gordetzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko urtarrilaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- 6.000 eurotan (BEZik gabe) **FINKATZEA** 2020ko kanona Kastore Gest, SL (Begi Bistan) enpresak Arraunetxan emandako zerbitzu hauengatik: arraunketako eta piraguismoko ontziak alokatzeko zerbitzua eta aisialdirako hangarreko apalak alokatzeko zerbitzua, arraun-ontziak eta antzekoak gordetzeko.

2.- %50eko hobaria **APLIKATZEA** Kastore Gest, SL (Begi Bistan) enpresak 2020an ordaindu beharreko adjudikazio administratiboaren kanonari, goian adierazitako zerbitzuak emateagatik. Beraz, enpresa adjudikaziodunak ordaindu beharreko kanona 3.630 eurokoa izango da 2020an, BEZa barne.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-LANGILEEN ORDAINSARIEN 2021ERAKO IGOERA ETA KARGUA DEDIKAZIO OSOAREKIN EDO PARTZIALAREKIN BETETZEN DUTEN UDAL-KORPORAZIOKIDEEN ORDAINSARIEN IGOERA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Igoera horren oinarrian Estatuaren 2021eko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legearen 18.2 artikuluan ezarritakoa dago.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko urtarrilaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udal-langileen ordainsariaren 2021erako igoera eta kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udal-korporaziokideen ordainsarien igoera: %0,90eko gehikuntza aplikatuko da 2020ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko; gehikuntza hori 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da, modu homogeneoan, kontzeptu guztietan: oinarriak, osagarriak, antzinasuna...

4.- BERRESTEA, EGOKI BADA, AHATEEN PARKEA MANTENTZEAREN ARDURADUNAK EMATEN DITUEN ZERBITZUEN BALDINTZAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Ahateen parkea mantentzearen arduradunak zerbitzuaren baldintzak berrestea proposatzen du.

Orioko udalbatzarrak honako erabakia hartu zuen, besteak beste, 2018ko maiatzaren 29n egindako ohiko bilkuran:

***ONARTZEA** ahateen parkea mantentzearen ardura CARLOS BARBA ALVAREZek hartzea, honako baldintzetan:*

- *Hileko 400 euroko diru-saria jasoko du.*
- *Istripuetako aseguru-poliza bat egingo zaio. Poliza horren prima urteko 74,60 eurokoa da.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko urtarrilaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

BERRESTEA Orioko Antilla hondartzako ahateen parkea mantentzearen arduradunak ematen dituen zerbitzuen baldintzak, udalbatzarrak 2018ko maiatzaren 29ko ohiko bilkuran onartutakoak.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ARITZAGA-ENDAIA ETA HERRIKO PLAZA BERRURBANIZATZEKO LANEN PROIEKTU ALDATUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Proiektu aldatua Jon Begiristain arkitektoak idatzi du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza batzordeak 2020ko abenduaren 18an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU**



ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Orioko Aritzaga-Endaia eta Herriko Plaza berrurbanizatzeko lanen proiektu aldatua. Proiektua Jon Begiristain arkitektoak idatzi du eta 1.898.679,55 euroko zenbatekoa du (BEZa barne). Zenbateko horrek %19,78ko gehikuntza dakar obraren adjudikazioaren aurrekontuaren gainean, eta %7,70eko gehikuntza obraren lizitazio-proiektuaren gainean.

Emandako botoak azaltzeko, Ainara Munduate lehen alkateordeak hartzen du hitza, Hirigintza batzordeko buru den aldetik, eta adierazten du proiektu aldatuan jasotako aldaketa nagusiak hauek direla:

- Basaltozko zoladuraren ordezt granito grisa erabiltzea.
- Endaia kaleko lurpeko hondakin-gunea kentzea.
- Aritzaga 5, 7 eta 9ko kalezuloa berrurbanizatzearen kostua.
- Ur-hornidurari dagokion gehikuntza.
- Ur beltzen saneamenduari dagokion gehikuntza.
- Euri-uren saneamenduari dagokion gehikuntza.
- Euskaltelen sarean egindako aldaketei dagokien gehikuntza.
- Obran SR zementua erabiltzeari dagokion gehikuntza.
- Iberdrolaren partidaren gehikuntza.
- Telefonicaren partidaren gehikuntza.
- Argiteriako partida berriei dagokien gehikuntza.
- Udaletxera iristeko beste arrapala bat egitea.
- Errusta-Endaia inguruko plaza handitu eta hobetzea.
- Piona berrien hornidura eta instalazioari dagokion gehikuntza.
- Banku korrituan egindako aldaketak.
- Toldo mekanizatuak eta egitura osagarria.
- Pasabidearen proiektua eta afekzioen azterketa.
- Neurketen partidan eta beste partida txiki batzuetan izandako gehikuntza.

Guztira, beraz, aipatutako proiektu aldatuan egindako aldaketek 313.629,58 euroko kostua izan dute (BEZa barne).



6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AINARA MUNDUATE LEHEN ALKATEORDEAREN DEDIKAZIO PARTZIALAREN PORTZENTAJEA ALDATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Bakarne Oliden Albeniz zinegotziak uko egin zion bere dedikazio partzialaren %25ari 2020ko irailaren 1etik aurrera, eta udalbatzarrari proposatzen zaio portzentaje hori Ainara Munduate Iguaran lehen alkateordeari gehitzea. Proposamenaren arabera, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, Ainara Munduate Iguaran lehen alkateordearen dedikazio partziala handitu egingo da: %50etik %75era; horrez gain, eta horrekin batera, Ainara Munduate lehen alkateordea Euskara eta Hezkuntza batzordearen buru izango da esandako datatik aurrera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko urtarrilaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Ainara Munduate Iguaran lehen alkateordearen dedikazio partziala handitzea %50etik %75era, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera; horrez gain, eta horrekin batera, Ainara Munduate lehen alkateordea Euskara eta Hezkuntza batzordearen buru izango da esandako datatik aurrera.

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du Udalak hainbat neurri eta erabaki hartu dituela gaur goizean COVID-19aren pandemia dela eta, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzak osasun publikoa bermatzeko udal-esparrurako emandako gomendioei jarraituz, eta bere talde politikoa guztiz bat datorrela neurri eta erabaki horiekin. Era berean, erabateko elkartasuna adierazten die COVID-19aren pandemiaren eragina sufritzen ari diren guztiei.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du oso gertutik segitzen dituela Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzak COVID-19ari buruz ematen dituzten datuak eta, herrian bizi dugun egoeraren aurrean, pandemiaren mahaia deitu behar izan duela gaur goizean, eta bertan zenbait erabaki hartu direla; besteak beste, udal-eraikinak ixtea. Adierazten du Udalak arduraz eta lasaitasunez jokatu duela, osasun publikoa bermatzeko, eta besarkada bero bana eta elkartasun osoa helarazi nahi diela pandemiaren eraginak sufritzen dituzten oriotar guztiei.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,